

ESTOLDERIA ZERBITZUA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. KAPITULUA

OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua ezarritako ahalmenak erabiliz, eta Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 4ko 5/89 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, Udal honek Estolderia Tasa ezarri du. Tasa horretan zerga ordenantza hau izango da aginduzko, eta honen arauak aipatu Foru Arauan jasotakoaren arabekoak izango dira.

II. KAPITULUA

ZERGAPEKO EGITATEA

2. artikulua

1. Honako hauek izango dira tasaren zergapeko egitateak:

a) Udalaren jardura tekniko eta administratiboak, baldin eta Udalaren estolderia saretik egin beharreko hartuneak baimentzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko egiten badira.

b) Komuneko urak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak Udalaren estolderia sarearen bidez isurtzeko zerbitzua ematea, eta ur horiek arazteko tratamendua.

2. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango finka eraitsiek, aurri egoeran daudenek edo orube edo lur direnek.

III. KAPITULUA

SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK

3. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen entitateak, honelakoak badira:

a) Finkaren jabari erabilgarriaren jabea, usufruktuduna edo titularra, baimena sarera lotzeko lizentziaren emakida bada.

b) Aurreko artikuluko 1.b) idatz zatiko zerbitzuak ematen badira, udalerriko finken okupatzaile edo erabiltzaileak, zerbitzu horiek jasotzen dituztenak, jabe, usufruktudun,

bizilagun edo errentari izan gorabehera, baita prekarioan bada ere.

Edonola ere, etxebizitza zein lokalen okupatzaile edo erabiltzailearen subjektu pasibo ordezkioak izango dira higiezin horien jabe direnak, eta, hala badagokio, horiek jasanarazi ahal izango dizkiete ordaindutako kuotak zerbitzuaren benetako onuradunei.

4. artikulua

1. Subjektu pasiboaren zerga-betebeharrei solidarioki erantzungo diete Bizkaiko Zergen Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoek.

2. Erantzule subsidiarioak izango dira sozietate eta sindikoen administratzaileak, porrot, konkurtso, sozietate eta erakundeen kontu-hartzaileak edo likidatzaileak, oro har, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen egoeretan eta irismenarekin.

IV. KAPITULUA

ZERGA KUOTA

5. artikulua.

Estolderia sarera lotzeko lizentzia emakidari dagokion zerga kuota behin baino ez da ordainduko. Ordaindu beharreko zenbatekoa finkoa izango da:

KONTZEPTUA	EURO
Gehenez ere 10 etxebizitza badira	45,73€
11-15 etxebizitza	87,10€
15 etxebizitza baino gehiago	217,76€
Merkataritza lokalak	45,73€
Industria-pabilioi bakoitzeko, azalera < 400 m ² -koa bada	136,10€
Industria-pabilioi bakoitzeko, azalera > 400 m ² -koa bada	272,20€

Estolderia zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko zerga kuota honako honen arabera ezarriko da: finkan erabilitako ur kantitatea, metro kubotan neurtuta. Horretarako, honako tarifa hau aplikatuko da:

KONTZEPTUA	EURO/m ³
Etxebizitza	0,14€
Etxebizitza gisa soilik erabiltzen ez diren beste higiezin batzuk	0,14€

Horniduragatik faktura daitekeen gutxieneko ur kontsumoa baino txikiagorik ezin izango da kontuan hartu inondik ere. Kontsumo hori kontuan harturik ondorioztatzen den kuotari dagokionez, gutxieneko kuota eska daitekeena izango da, hau da, 15 m³ hiru hilez behin.

V. KAPITULUA

6. artikulua

1. Zergapeko egitatea eragiten duen udal jarduera hastean sortzen da tasa eta hori ordaintzeko beharra. Honako kasu hauetan ulertuko da jarduera hasi dela:

a) Hartunearen lizentzia eskaera aurkezten den egunean, subjektu pasiboak berariaz hala eskatzen badu.

b) Udalaren estolderia sarera hartunea egiten den unean bertan. Hartunearen lizentzia lortu zein ez sortzen da tasa mota hori ordaindu beharra; hala ere, baimen hori martxan jartzeko, administrazio espedientearen hasiera izapide daiteke.

2. Udalerriko finka guztiei nahitaez eskaini beharko zaie komuneko urak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak isuri eta arazteko zerbitzua, baldin eta finka horiek estoldak dituzten kale, plaza edo bide publikoetan badute fatxadaren bat.

VI. KAPITULUA

AITORPENA, LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

7. artikulua

1. Subjektu pasiboek altaren eta bajaren aitorpenak egin beharko dituzte tasaren erroldan, finkaren titularitatea aldatzen den egunetik hurrengo hilaren azken egunera bitartean. Aitorpen horiek aurkezteko epea amaitu ondoren egingo den lehenengo likidazioaren egunetik aurrera izango dute indarra. Erroldan lehenengo aldiz sartzea ofizioz egingo da, sarerako hartunearen lizentzia eman ondoren.

2. Tasa hau dela-eta eskatutako kuotak ur hornidura eta kontsumoko ordainagiriak ordaintzeko dauden epeetan eta aldi berberengatik likidatu eta kobratuko dira.

3. Hartune lizentziak direla eta, zergadunak, lehenengo eta behin, eskaera egingo du eta, ondoren, Udaleko zerga zerbitzuek, lizentzia emandakoan, dagokion likidazioa egingo dute. Zergadunak likidazio hori zuzenean ordain dezan, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek xedatutako arauzko era eta epean jakinaraziko da.

AZKEN XEDAPENA

Indargabetuta geratzen da aurreko ordenantza fiskala.

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez aldatu da, 2018ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta hala jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte. Ordenantza Fiskal honen aldaketa partzialik egonez gero, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Aurrekontuen Foru Arauetarako edo zuzenean aplikatu beharreko beste edozein arau edo xedapenentarako ezarritako tasaren araudian gaineratutako aldaketek Ordenantza Fiskal honi dagokion isilbidezko aldaketa eragingo dute.